


Epikaz



BEA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Urteetan Garazi eta Baigorri aldean, Ipar Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezala, memoria bilketa lanak burutu dituzte grabaketa bidez hainbat antolakundek: kultur erakundeak adibidez, edo Kanaldudek, edo batzuetan ikertzaileek, dela emankizun baten kariatara, dela gaiaz erakusketak antolatzeko, dela ikerketen elikatzeko. Lekuko horiek jadanik lekuko zirenak dira, gehienak mundu honetatik lekuak direlako.

Lekukotasun horien entzuteko eta lantzeko parada dut noizbehinka, azken asteetan, eta aitortu behar dut denbora pasa zoragarria dela. Izan ere, dokumentu horiek altxorrak dira, maila anitzetan.

Bata da mundu ikuskera. Jende horiek deskribatzen duten bizia 'batua' da. Hasteko, kontzientzia handia dute lurraldetasunaz, inguratzen dituen guziaz, eta dena da leun, argi eta bat. *"Mendi hauek nik nituen ezagutzen (...) Ene lekuak ziren hauek, nitarik behar zuten pasatu zerbait egin nahi zutelarik"*. Lurralde batean daude, auzo eta herrikideekin harreman eta dependetzia estuan, badakite kulturalki bereiz direla, nahiz eta kultura hitza ez sekulan

erabili. Funtsean hitz intelektual horietarik bakar bat ez dute ahoskatzen: kultura, nazioa, identitatea, gizarte kohezioa, erabaki, garapen eta holakorik ez da agertzen. Bestelakoak dira hitzak. Kontzeptuak bizitzen dituzte. Mendiak, herriak, auzoak, etxeak, lanak, haiek eta gu. Biziki argiki dituzte bereizten 'haiek' eta 'gu' izendatuen atzekoak. *"Hemen guk hola egiten genuen"*, *"Jakin ezazu bizia ez zela goxoa e! Baina elkarrekin ari ginen denak berdinki"*. Liluragarria da lekuko horien betetasuna. Baike, deskribatzen duten mundua, herenegunekoa da. Haatik badute osotasuna, borobiltasuna, konpaktuak dira. Haien aldean puzzle barreiatuak gara.

Aparta da hizkuntza. Aspalditik entzunak ez nituen hitzak eta espresioak entzuteko parada dut, eta erranaldi itzuliak, osoki euskaraz pentsatu adieraz-moldeak, erdararen kutsurik baterre gabekoak dira. Bazen jende arrunta, gutxi eskolatua, edozein gairi buruz euskaraz aritzeko gauza. Gaur arraroa bihurtu da gaitasun hori, bat-batean gaitati buruz ederki jarduteko trebezia. Hots, hitz galduak. Eta aldi berean bada xantza horiek salbatu ahal izatea, artxi-bo numerikotan baizik ez bada ere.

Azpimarragarria, epikotasuna. *"Behin, hola, De Gaullek telefonatu zigun, guri, laguntza behar baitzuen. Bazter hauetarik azkenean alemanak harro gintzan galdegin zigun"*. Egia ala denboraren eragina, auskalo, haien bizia epopeia moldean aurkezteko duten joera nagusitzen da. *"Guardek ez gintuzten sekulan harrapatzen, sekulan"*. Dena da handi, urrun, heroiko, eta aldi berean hurbil eta xume, eskukoa, menperatua, garbi eta sinplea. Lotua da lekuari? Lotua da garai historikoen berezitasunari? Oronen buru, historia norberarenetik ez ote da hasten?

Bukatzeko, preziagarria, detaile zenbaitek kondairari alde fantastikoa emanen dio. *"Kontrabandako behiekin, (Ezterrenzubitik) Bilbaora joaiten ginen, oinez. Igande arratsaldean parti eta biharamunekoz zazpietan heltzen ginen. Bilbaora"*. Ez diet nik istorioaren detaile bakar bat aldaraziko, ez diet erranaraziko besterik, diotena bere horretan hain da osoa: azken finean, denek genuke bizi nahi herri ernegatu horretan, bat eginik kreazioarekin, gure harremanez libre, joan jinez ere.

Pandemia garaietarik landa, edozein hondamendiren ondotik bezala, nostalgiaz besarkatu ohi gaitu, omen. ●